



**AISIALDIKO BEGIRALE- ETA ZUZENDARI-TITULU OFIZIALEN EUSKARAZKO
IKASKETETARAKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK. URDUÑA, 2020.
URTEA**

LEHENENGOA.- Helburua

Oinarri hauen xedea da Urduñako Udalak, bere Euskara Arloaren bitartez, Aisialdiko Begirale eta Zuzendari Titulu Ofiziala lortzeko bekak emateko esparrua arautzea, norgehiagoka-araubidean.

BIGARRENA.- Lege markoa, aurrekontua eta beken zenbatekoa

Deialdi honen lege-markoa 2011ko uztailaren 28an onarturiko Urduñako Udalaren Diru-laguntzak Arautzeko Oinarri Orokorren Ordenantza Nagusia zein Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, eta berau arautzen duen arautegia eta bat datozen gainerako lege-ebazpenak izango dira.

Era berean, honako hauexetan diru-laguntzen arloan xedatutakoa ere ezarri beharko da:

- Eusko Legebiltzarrak otsailaren 18an Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako emandako 4/2005 Legea eta gainerako arau osagarriak.
- Gardentasunari, Informazio Publikoaren Eskurapenari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen I. titulua.
- Desgaituen Eskubideei eta Haien Gizarte Inklusioari buruzko azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren II. titulua.
- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Aurreko arautegietan aurreikusita ez dagoen guztian, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea ezarriko da.

2020an guztira 3.500 euroko zenbatekoa gorde da deialdi honen xederako, eta gastu osoa Urduñako Udalaren 2020. urteko aurrekontuetako 04 3303 48115 ("Euskara ikasteagatiko diru-laguntzak") partidaren kontura egingo da.

Eskaera guztiei aurre egiteko diru nahikoa balego, gastu lagungarriaren ehuneko 50 ordainduko litzateke. Nahikorik ez izatekotan, ehuneko horiek txikituko lirateke aurrekontu baliagarrira egokitu arte. Diruz lagungarria izango da matrikularen kostua zein barnetegietako egonaldiaren gastua.

Halaber, dirurik soberan balego, zenbateko hori banatu ahal izango litzateke portzentajea proportzionalki handituta eta % 70eko mugara iritsi arte, hau da, gehienez ere matrikularen % 70a esleitu ahal izango litzaioke eskatzaile bakoitzari.

Gehienez ere 315 euro emango dira begiraleentzako ikastaroa egiteagatik, eta 120 euro, zuzendari titulua ateratzeko ikastaroarengatik.

HIRUGARRENA.- Onuradunak eta bekak emateko baldintzak

Onuradun diren pertsonak ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- 1.- Urduñan erroldatuta egotea diru-laguntza eskatzean, eta aurreko urtean zehar gutxienez.
- 2.- Ikastaro osoa euskaraz egitea eta zati teorikoa gutxienez 200 ordukoa izatea.
- 3.- Bekak egindako ikastaroen arabera onartuko dira, beti ere, 2020an zehar titulua lortu dela egiaztatzen bada. Horretarako, eskatzaileek tituluaren fotokopia aurkeztu beharko dute, edo bera eduki ezean, titulua tramitatzen ari deneko egiaztagiria, dagokion Asialdi Eskola, enpresa edo entitate homologatuak luzatuta.
- 4.- Eskatzaileak Urduñako Udalak datuak egiaztatzeko egiten dituen azterketak onartuko ditu, baita egiaztatze edo finantza kontrolerako eskumena duten organo nazionalak edo Europako Erkidegokoek eskatzen dituztenak ere.
- 5.- Eskatzaileak xede berdinerako lortu edo eskatu dituen gainerako diru-laguntzen berri emango dio udalari. Nolanahi ere, jasotako diru-laguntza guztien batuketak ezingo du ikastaroaren gastu lagungarria gainditu.
- 6.- Beste diru-laguntzarik lortuz gero, eskatzaileak jasotakoa egiaztatzen duten agiri guztiak gordeko ditu, baita elektronikoak ere, balizko egiaztatze eta kontrol jardueretarako.
- 7.- Eskabidean eta emandako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak izango dira. Dokumentazioan edozelako faltsukeriarik aurkituko balitz, diru-laguntzaren galera zuzena ekarriko luke.
- 8.- Kasuren batean eskatzailearen bat Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. atalean edo Urduñako Udalaren diru-laguntzak emateko modua arautzen duen Diru-laguntzen Ordenantza Arautzaile Nagusian laguntza horiek ezintasunerako zehazten diren egoeraren batean balego, ezin izango luke deialdi honen onuradun izan.

LAUGARRENA.- Bekak erabakitzeke irizpideak eta emateko erregimena

Deialdi honetako hirugarren atalean adierazten diren betekizun guztiekin bat etorritik gero, beka eskuratzeko eskubidea izango da.

Gehienez ere 315 euro emango dira begiraleentzako ikastaroa egiteagatik, eta 120 euro, zuzendari titulua ateratzeko ikastaroarengatik.

BOSGARRENA.- Aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskabide-inprimaki normalizatua, datu guztiak beteta (posta-helbidea, telefonoa, e-posta...) Pertsona eskatzaileak eskabide-orrian izenpetu beharko du, diru-laguntzen onuraduna izan ahal izateko debekuetako baten pean ere ez dagoela aitortzeko, zehazki Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta berarekin bat datorren beste edozein xedapen betetzen dituela aitortzeko.
2. Ikastaroaren matrikularen gastuen eta barnetegiko egonaldiko gastuen ordainketa agiriak, eta lortutako tituluaren fotokopia edo titulua tramitatzen ari deneko egiaztagiria, dagokion Asialdi Eskola, enpresa edo entitate homologatuak luzatuta.
3. Asialdiko Eskola, enpresa edota entitate homologatuak luzatutako bertaratze-agiria ondoko informazioa jasota: eskoletan erabilitako hizkuntza, zati teorikoaren guztizko ordu kopurua eta ikastaroaren guztizko kostua.
4. Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia eta, beka lehen aldiz eskatzen bada edo diru-laguntza kontu-zenbaki berri batean sartu behar bada, hirugarrenen alta orria aurkeztu beharko da behar bezala beteta.
5. Zinpeko aitorten bat adieraziz euskara ikastaro horretarako gainerako erakunde publiko edo pribatuei eskatutako diru-laguntzak jasota ere, ez dela gain finantzaketarik izango.

SEIGARRENA.- Eskaerak aurkeztea eta epeak

Eskabideak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu osteko hurrengo egunetik aurrera hasiko da, eta 30 egun naturalez egongo da irekita.



Eskabidea Urduñako Udaleko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu ahalko da (www.urduna.com / Izapideak); edo, paperean, Udaleko Sarrera Erregistroan (Kale zaharra 2-4), 9:00etatik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

Era berean, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan legearen arabera aurreikusitako gainerako lekuetan ere aurkeztu ahal izango da eskabidea.

Eskabidea behar bezala aurkeztuko ez balitz edo daturen bat edo aipatutako agirietako bat faltako balitz, gabezia horiek 10 egun naturaleko epean zuzentzeko eskatuko zaio pertsona eskatzaileari. Gainera, jakinarazi ere egingo zaio hori egin ezean izapide gehiago egin gabe artxibatuko dela eskabidea.

ZAZPIGARRENA.- Azterketa, erabakia eta eskumeneko organoak

Behin eskaerak aztertuta, txosten tekniko bat prestatuko da, geroko erabaki-proposamenaren oinarria izango dena. Txosten horretan Euskara Arloko Zinegotziaren oniritzia jasoko da.

Eskariak erabakitzeko orduan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta bere arautegia zein berarekin bat datozen bestelako lege-ebazpenei jarraituko zaie.

Honako hauexek osatuko dute Balioespen Batzordea: Euskara eta Hezkuntzako zinegotzia eta Euskara eta Hezkuntza Saileko teknikaria, edo organo esleipengileak beharrezkotzat jotako beste langile batzuk.

Behin eskaera guztiak aztertuta deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera, Balioespen Batzordeak dagokion txostena prestatuko du egindako azterketaren emaitzak jasota.

Prozedura ebaztea Alkatetzari dagokio.

Eskabideak ebazteko eta ebazpenaren berri emateko gehieneko epea sei (6) hilekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

Epe hori igarotakoan berariazko ebazpenik eta horren jakinarazpenik ez balego, eskaera administrazioaren isiltasunagatik ezetsi egin dela ulertuko da. Nolanahi ere, geroago ebatzi ahal izango da berariaz.

Ebazpen-erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko alkateari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, modu berean zenbatuta.

ZORTZIGARRENA.- Kontrola

Diru-laguntza ematen duen organoak beharrezkotzat jotzen dituen administrazio kontrolak eta ikuskaritzak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazio datuak egiazkoak diren edo diru-laguntza jaso ahal izateko jarritako eginbeharrak betetzen dituen egiaztatzeko.

Onuradunak, balizko ikuskaritzan laguntza eman beharko du eta eskatutakoak lortzen erraztasunak emango ditu.

BEDERATZIGARRENA.- Laguntzaren galera



Jasotako diru-laguntza eta kasuan kasuko berandutza-interesak itzuli beharko dira, aurreko oinarrietan zehaztutako edo Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17. artikuluan aurreikusitako betebeharren bat edo batzuk betetzen ez direnean.

Diruz lagundutako jardueraren kostuaren arabera larregizko finantzaketa ere izango da itzultzeko arrazoia.

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztia honako hauexetan xedatutakoaren arabera interpretatuko da: onartutako eta 2011ko irailaren 21eko 181. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Urduñako Udaleko Diru-laguntzak Emateko Oinarri Orokorrak Arautzen dituen Ordenantza; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta Dirulaguntzei buruzko Araudi Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

HAMARGARRENA.- Zabalkundea

Deialdi hau bere osotasunean jarriko da irakurgai udal webgunean (www.urduña.com) eta halaber, Udalaren iragarki-tauletan zein Zikoina udal-aldizkarian haren berri emango da ahal den zabalkunderik handiena emateko.

Euskara arloko teknikaria

DILIGENTZIA: Honen bidez, goiko diru-laguntzen deialdiaren oinarriak 2020ko azaroaren 18an Alkatetza Dekretu bidez onartu zirela jakinarazten da, jasota gera dadin.

Urduñan, 2020ko azaroaren 18an

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA